

# Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

2013/4/26 | 382

- May Gorostiaga eta Zigor Agirrezabala
- Herri Urratserako autobusa prest
- Eta Ibarra "hilik" dagoela diote...
- Digestio arazoak... Zeliakia?
- Tortura Sistematika



## Euskarari zubiak eraikiz

- Miren Agur Meaberekin solasean

  
**ORIXETOLOSA**  
Egurren hezkuntza kontzeptua  
Euskarari eta Euskararen hezkuntza

**MUNDU ZABALERAKO  
ZUBIA**



943 65 13 87

E-mail: 012980aa@hezkuntza.net www.orixebhi.hezkuntza.net

**Batxilergoak**  
Zientziak eta Teknologia  
Gisa eta Gizarte Zientziak  
**Irakasgaleen  
Eskaintza Zabalena**



Aurrematrikula: Maiatzaren 2tik 14ra

TOLOSALDEKO IKASTOLAK

# Ongi etorri Ikastolara





Anetako Herri Ikastola  
943 65 29 32  
www.anetakoherriikastola.net



Iruako Ikastola  
943 69 43 74  
www.iruakolikastola.net



Tolosako Inmakulada Ikastetxea  
943 67 36 29  
www.inmakuladatotolosa.com



Jesusen Bihotza Ikastola  
(Vilabona/Zizurkil)  
943 69 23 21  
www.jesusenbihotzaikastola.com



Laskorain Ikastola (Tolosa)  
943 69 71 22  
www.laskorainikastola.net



Urturpe Ikastola (Ibarra)  
943 67 12 99  
www.urturpe.net



Ikastola Elkartera

**Matrikulazio epea**  
Maiatzaren 2tik 14ra;  
**Ate irekiak:**  
Maiatzaren 2an 17:30ean Usabalgo Areto nagusian

**JON MAIA**

## RIOMUNDO, HISTORIA DE UNA FAMILIA EMIGRANTE



**HITZALDIA  
MAIATZAK 9, OSTEGUNA,  
19:30EAN, LA JARAN  
GAZTELERAZ**

**NUTRIZIO AHOLKULARITZA OSASUN ZENTROA**



**AMAIA ETXETXIPIA**  
"BIOLOGIAN" lizentziatua eta "GIZA ELIKADURA ETA DIETETIKAN" Diplomaturia

DIETA PERTSONALIZATUAK  
OBESITATEA  
NUTRIZIO BERREZIKETA  
ARIKETA FISIKOA  
HELDUAK ETA HAURRAK

KONDEKO ALDAPA,  
3 B - 2º ESKUBIA  
20400 TOLOSA

ALDEZ AURREKO  
HITZORDUA  
679 934 888

# SUPEREKO


Zure Tolosaldeako Super-a, orain OnLine

Zerbitzua eta kalitatea

<http://www.supereko.net>

Erosketak etxera eramango dizkizugu  
Eskerrik Asko

non<sub>er</sub>



## galtzaundi

Euskarara taldea

Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.  
Helbidea: Nafarroa etorbidea, 6-behea, 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
943 655 004  
20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
943 655 004  
Faxa: 943 654 983  
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com  
Webgunea: www.galtzaundi.com  
Kordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.  
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxia, Eneritz Iraola, Josu Izutueta, Txarli Gesteira, Aritz Larreta, Begoña Aristi eta Zigor Agirrezabala

Publizitatea: Bidera Publizitatea  
661 678 818 - aetxaniz@bidera.eu


Banatzaileak: Olatz Garmendia, Juankar Arregi

Zuzentzailea: Nora Olano  
Maketazioa: Galtzaundi  
Diseinua: Zigor Agirrezabala


Azala: Galtzaundi  
Inprimategia: Antza.  
Tirada: 4.500 ale  
Lege gordailua: 55-906/91  
Franko Itundua: 37/94

GALTAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alto, Amezketa, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.


Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**TOLOSAKO UDALA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

**kutxa gizarte ekintza**

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jasotzen du.

Galtzaundin azaldutako iragarleek diruz lagundu dute argitalpena.



**Erreportaia:  
Euskarari zubiak eraikiz**

Euskararen erabilpenean eragin asmoz, Tolosako Euskararen Mahaiak bi ekimen antolatu ditu maiatzarako: Jon Maiak gaztelerez eskainiko duen "Riomundo, historia de una familia emigrante" hitzaldia eta Aitzol Udal Euskaltegian arabieraz eta gaztelerez egingo diren ate irekiak.

8-11. orrialdeak

Miren Agur Meabek "Kristalezko begi bat" autofikzio lanean erabat biluztu egiten da hasierako esaldietatik: "begi bat galdu nuen nerabezaroan; minbiziz hil zitzaidan ama; dibortziatua naiz eta seme bat daukat; enkarguzko lanak idaztetik ateratzen dut bizibidea; berriki utzi egin dut maite-laguna eta harrezkero gaixotuta nago...".

Elkarrizketa: Miren Agur Meabe  
14-16. orrialdeak

6	Iritziaren leihoa: May Gorostiaga eta Zigor Agirrezabala	4-5
6	Normalizazioa: Galtzaundik Herri Urratserako autobusa prestatu du	7
6	Ikasleen txokoa: Eta Ibarra "hilik" dagoela diote...	12
6	Koxkl: Digestio arazoak... Zeliakia?	17
6	Tortura Sistematika, hiru hamarkada atzera eginez	18-19



May Gorostiaga  
Teatreroa

(Intujai Teatro, Amarozko Antzerki Artisauak,...)

Ale honetako nire testuaren lehenengo paragrafoak amets bat izan zuen: letra handiagoekin azaltzea, ondorengo paragrafoak irakurtzen jarraitzen gonbidatzeko. Eta ikusten duzun bezala bere ametsa egi bihurtu da.

Eta une honetan zuk irakurtzen jarraitzea aukeratu duzu, bere ametsa errealitatea bihurtuz. Zuk nahi izan duzulako. Beraz, amets soil bat edo errealitatea da? Non dago bien arteko muga? Gauza bera dira?

Askotan ez dugu sinesten errealitatean gertatzen dena; ametsa dirudiela esaten dugu. Beno, edo amets gaiztoa (gertakaria txarra edo gogorra baldin bada).

Oheratzekoan ere beti saiatzen gara lo egin aurretik gure proiektuetan pentsatzen, beraiekin amets egiteko eta horrela modu hobean imajinatuz egi bihurtzeko.

Eta amets gaizto bat izaten badugu errealitatea balitz bezala bizitzen dugu, azken momentura arte sufrirituz.

Errealitateak kolpe handi bat ematen badigu edo bizitza gogorregia bihurtzen bazaigu hortxe daude gure ametsak hortik ateratzeko. Sikiera une batzuk... Ikusi duzu noizbait zer-nolako irribarreak ikusten diren sufrimendu latzak dauden herrialdeetan?

Modu berean amets gaiztoak jasanezinak bihurtzen direnean gure gorputzak badaki zer egin arriskua urruntzeko eta gu lasaitzeko: justu momentu okerrean begiak ireki eta esnatu.

Beti, batetik bestera bidaiaitzen dugu, muga non dagoen jakin gabe.

Hala ere, pertsona itxi batzuk beti esaten digute errealitatea zer den eta egi osoa zein den. Ez dute guk amesterik nahi eta beti muga hori handitzen saiatzen dira. Batez ere umeekin: "kontuz ibili, beti ametsetan zaude", "jaitsi errealitatera", "zu beti ilargian"...

Beste batzuk ordez ez dute nahi inongo mugarik bere bizitasuna txikitzeko: sortzailak, zientzialariak, abenturazaleak, maiteminduak, pailazoak...

Nire ustez errealitatearen eta ametsen arteko muga oso fina da eta ziur nago nonbait komunikatzen direla. Galtzerdiak bezala...

Galtzerdi hutsak besterik

## Galtzerdia

ez gara. Gure barrualdeak ez daki zer dagoen kanpoaldean eta alderantziz.

Bai, askotan pentsatzen dut nire azala galtzerdi bat besterik ez dela. Galtzerdi honen barruan bizi naiz.

Eta galtzerdi normalek oina sartzeko zulo bat badute, nireak ere zulo bat du.

Badakizu non? Zilborrean.

Eta galtzerdi normalak bezala nireari ere zulotik ematen zaio buelta alderantziz jartzeko.

Nire gorputzaren azalak zilborrean zulotxotik ematen da buelta.

Esnatuta nagoenean azalaren kanpoan kanpoko unibertsoa daukat eta nire galtzerdiaren barruan nire barruko unibertsoa.

Eta amets egiten dudanean, ez dakit nola, baina azalaren galtzerdia alderantziz jartzen da zilborrean zulotik eta kanpoko unibertsoa nire barruko mundua bihurtzen da eta nire barruko unibertsoa argi eta garbi kanporatzen da beste dimentsio batean.

Gure errealitateko erantzunak ametsetan daude eta gure ametsen helburuak errealitatean.

Ez dakit nire ale honetako testua errealitatean edo ametsetan sortu den.

Baina galtzerdiaren metafora horrela ez bada, nola esplikatatu zergatik esnatzen naizen goizero zilborra *pelusillaz* beteta?

Zuri ere gertatzen zaizu?

Ba jarraitu amesten... ☺

Galdegin de<sup>l</sup>agun!!!



Zigor Agirrezabala  
Diseinatzaile Grafikoa

Ongi etorriak izan daitezela kontsulta-zale berriak. Lan honetan inoiz ez dago inor soberan. Nik agendan baditut erabakitze aukera izpirik izan ez genituen hainbat gai. Nire ekarpen hau helarazi nahi dizuet, iritsi berriak zaretenero lagungarri izan dakizuen ibilbide berri honi ekiteko.

Berrero ere ongi etorriak, aurrerantzean herri galdeketa sinisten dugunok zuen laguntza behar izango baitugu. ☺



*Irakurle Taldea:  
Maiatzeko tertulia*

*Eguna: Maiatzak 16, osteguna  
Ordua: 19.30  
Lekua: Tolosako Kultur Etxea*

*Irakurri beharreko liburua:  
"Intemperies  
(babes bila)"  
Lourdes Oñederra*



Hogeita abar urte

# Galtzaundik Herri Urratserako autobusa prestatu du

Datorren maiatzaren 12an, igandean, Ipar Euskal Herriko ikastolen festa ospatuko da. Urtero legez Senpereko lakuaren bueltan euskarari eta ikastolei babes emateko festa izango da protagonista. Eskualdeko eskaerei erantzunez Galtzaundi Euskara Taldeak aurten ere autobusa antolatu du Tolosatik Senperera.

Galtzaundik prestatutako autobusa zerbitzua erabili ahal izateko tiketak alde aurretik Galtzaundiko bulegoan bertan (Nafarroa etorbidea, 6 behea. Tolosa) erosi behar dira. Autobusa goizeko 09.00etan aterako da Tolosako Zezen Plazatik eta itzulera ordua ordea Senperetik arratsaldeko 19.00etan izango da. Tiketen prezioa 12 eurokoa da eta Galtzaundiko bazkideentzat 10 eurokoa.

## Hogeita abar urte

Herri Urrats 2013ak "Hogeita abar urte" izango du lelo nagusi. Izan ere, aurtengo edizioa berezia izango da, 30 urte beteko dira Herri Urrats ospakizuna lehenengoz antolatu zenetik. Hori dela eta,

antolakuntzak data ospatu ahal izateko herritarren partaidetza eskatu du; 30 urte hauetan zehar aurrera eramandako edizio guztietako argazkiak bildu nahi baititu. Dagoeneko herriurrats.com webgunean hasiak dira urte ezberdineko argazki galeriak zabaltzen.

1984ko maiatzaren 13an Senperetik izan zuen bere lehen Herri Urratsa. Orduko prentsari erreparatuta, 10.000 pertsona bildu ziren euskarari eta ikastola mugimenduari indar eta babes emateko.

## Irudia

Igaro diren 30 urte horiei erreferentzia egingo die aurtengo edizioaren irudiak "eten puntuen" bitartez: "hiru puntu horiek oraindik eman

beharreko urratsak adierazten dute. Eta bakoitzaren baita, puntuazio ikurrek bigarren mezu bat pasatzen dute. Lehendabizikoan, harridura ikur batek orain arte egindakoa baieztatzen du. Bigarrenean, galdera ikur batek gogoratzen gaitu zertarako Herri Urrats, hau da, zein diren bestaren xedeak. Hirugarren puntuaren baitan diren beste eten puntuak ezinbestean etorkizunaz mintzatzen dira.", jakitera eman dute Sehaskatik.

Bestetik, 3a da 2013ko edizioaren zenbaki magikoa: 30 urtetan 30 ikastola ireki bai-

tira Ipar Euskal Herrian eta egun, guztira, 3.000 haurrei hezkuntza sistema hau ahalbidetu ahal izan zaie.

## Aurtengoa

Aurtengo edizioak 30. urterena ospatzeaz gain, errebendikazio egoera ere bilatuko du, horrela jakinarazi du Hur Gorostiagak, Seaskako zuzendariak: "Iparraldeko ikastolen egoera beti da larria, baina malerusi aurten are larriagoa da, batetik Frantziako Gobernuak Hendaiaiko Udalarari ikastola berria eraikitzeko ezarri dion debekuaren inguruan sortutako arazoa ez delako oraindik konpondu, eta bestetik Patxi Lopezen gobernuak agindu zigun laguntza ordaindu gabe alde egin duelako". Seaskaren diru-zuloari erantzuna emateko eskaera luzatu du horrenbestez Hur Gorostiagak: "bereziki garrantzitsua aurten inoiz baino jende gehiagok bat egitea Herri Urratsekin eta gure ikastolekin".

## Egitaraua

Maiatzaren 1a arte Seaskak ez du jakitera emango aurtengo programa osatua. Hala ere, dagoeneko hainbat

talde eta artisten izenak ezagutzera eman dira: Hurmura, Anai Arrebak, Xutik... Zergatiak ugariak beraz, maiatzaren 12an Herri Urrats festarekin bat egiteko.



## Errenta aitortpena euskaraz



2012ko urteari dagokion errentaren gaineko aitortpena egiteko kanpaina dagoneko hasi da eta ekainaren 25a arte luzatuko da. Errenta aitortpena zein hizkuntzatan egin norberaren esku dago. Galtzaundik, Kontseiluak, UEMAK (Aduna, Anoeta, Alegia, Altzo, Ametzeta, Ikaztegieta, Irura eta Orea), Ibarrek, Tolosak, Villabonak eta Zizurkilek euskaraz egiteko deia zabaldu dute.

"Aurten noraino?" kanpainari esker, eskualdean 6.000 zergadunek administrazioare-

kin egin beharreko tramite hau euskaraz egitea bilatzen da. Horretarako, 10.205 eskuorri eta 266 kartel zabaldu dira.

Errenta aitortpena autolikidazioz zein mekanizatuz (norberak eginda, gestoria bidez kudeatuta edo Foru Aldundiaren laguntza-programa erabiliz) egiterakoan hizkuntzaren aukeraketa zehaztu daiteke. 902 100 040 telefono zenbakia eta www.gipuzkoa.net/ogasuna/errenta webgunea dira erabili beharreko bideak.



**Arretxe**  
LORATEGIA CB

Etxebarru zein kalerako lorak.  
Lorategi lanabesak.  
Lora legor eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -  
Tel.: 943 673 118 Tolosa

**jare**  
PSIKOLOGIA ZENTRUA

**AMAIA PEREZ**  
zbkia. GZ-1919

Senpere kalea, 7  
20200 Beasain  
Tel. 675 634 329

Errotulazioa & irudia  
**Vicente**  
www.rotulosvicente.com

943 69 02 94  
taller@rotulosvicente.com  
Lasibar bialan 25, 1-04 atea  
20271 Irua (Gipuzkoa)

# Euskarari zubiak eraikiz

Euskararen erabilpenean eragin asmoz, Tolosako Euskararen Mahaiak bi ekimen antolatu ditu maiatzerako: Jon Maiak gazteleraz eskainiko duen "Riomundo, historia de una familia emigrante" hitzaldia eta Aitzol Udal Euskaltegian arabieraz eta gazteleraz egingo diren ate irekiak.

Igor Mujika

Extremaduratik Euskal Herrira etorri ziren bere gurasoak eta euskarak eta euskal kulturak bere bizitzan izan duten garrantzia izango ditu hizpide Jon Maiak Tolosako La Jara Extremadura etxean eskainiko duen hitzaldian. Ekimen honen helburua, euskara eta euskal kultura ardatz, Tolosan bizi diren jatorri



## Ekimenak

**Jon Maiaren "Riomundo, historia de una familia emigrante" hitzaldia.**

Maiatzak 9, osteguna, 19:30ean, Tolosako La Jara Extremadura etxean.

## Ate irekiak.

Arabieraz, maiatzak 14, 18:30ean, Aitzol Udal Euskaltegian.

Gazteleraz, maiatzak 16, 18:30ean, Aitzol Udal Euskaltegian.



ezberdinetako pertsonen arteko esperientzientzia elkartruketa egitea da.

Maiatzaren 14ean eta 16an, berriz, ate irekiak egingo dira Aitzol Udal Euskaltegian. Euskaraz ez dakitenengana hurbiltzeko helburuarekin antolatu diren ekimenak izaki, arabieraz eta gazteleraz emango dira azalpenak. Jatorriz Marokoko Bejouâd herrikoa izanik ere,

Tolosan bizi den Abdelillah Krouit zuzenduko zaie arabiar jatorriko tolosarrei. Banaiz Bagara elkartean aritu ostean, Aitzol Udal Euskaltegian euskara ikasteko pausoa eman du Abdelillah Krouitek. Argi du euskara integrazioarako bidea dela eta, horregatik, "etorkinek euskara ikastea" nahiko luke. Bere esanetan, "arabiar jatorriko nire lagunak badute euskara ikasteko interesa" eta, bidea

errazteko, Aitzol Udal Euskaltegiko instalazioak erakutsi eta Tolosan euskara ikasteko dauden bideen berri emango die. Izan ere, "oso gustura" ari da euskara ikasten eta, bere esanetan, "euskaltegian hasi naizenetik, euskaraz errazago hitz egiten dut".

**Ezagutza eta erabilera datuak**  
Aitzol Udal Euskaltegiko zuzendaria Mikel Uzkudunekin eta

**ZALBIDE**  
Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan. Ostirala, larunbata eta igande eguerditan irekita, iluntzetan egunero.

Zalbide baserria - Abaltzisketa  
Tel: 943 652 176



**SANTAMARIA**  
Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantzirako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610  
TOLOSA



**J. San Sebastian**  
MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141



## Tolosako datuak

Euskaraz komunikatzeko gaitasuna dutenak:	<b>%64,54</b>
Euskara ulertzen dutenak eta, zailtasunak zailtasun, hitz egiteko gai direnak:	<b>%21,02</b>
Euskara ulertzen ez dutenak:	<b>%14,44</b>
Kaleko erabilera datua: euskaraz	<b>%43,00</b>
Kaleko erabilera datua haurrek tar-tean direnean: %65.	<b>%65,00</b>

## Euskara Mahaia

Informazioa elkartrukatu eta sinergiak bilatzeko borondatez, Galtzaundi euskara elkarteak Tolosako Euskararen Mahaia antolatu zuen 2012ko udazkenean. Euskararen normalizazioa helburu Tolosan diharduten eragileen egitasmoekin osatutako lanerako mapa osatzea izan zen bertan biltzen

diren eragileetako ordezkarien lehen zeregina. Tolosako egitasmoen mapa eskuan, 2013ari begirako elkarlan posibleak aztertu eta helburuak finkatu zituzten. Euskara oinarri izango duen Tolosa hiria eraikitzeke, eragile ezberdinen arteko elkarlana sustatu eta esparruz esparru eragitea da helburua.

Galtzaundik dinamizatzen dituen bilkuretan, ondoren zerrendatzen ditugun eragileetako ordezkariak hartzen dute parte: Aitzol, Banaiz Bagara, Euskara Batzordea, Kontseilua, Hirukide, Inmakulada, Lanbide Heziketa, Laskorain, Samaniego eta Orixe.

## Euskalduntzeko bide orria

**Euskarara hurbildu:** Banaiz Bagara elkarte. Euskarazko hitzak erakutsi eta herriko eragileekin hartu-emanak lantzen ditu. 645 733 818 / ninaizgugara@gmail.com

**Euskara ikasi:** Aitzol Udal Euskaltegia. Euskara ikasteko, aurrez aurreko eta autoikaskuntza formatuko ikastaroak eskaintzen ditu. 943 651 006 / aitzolue@tolosakoudala.net

**Praktikatu:** Mintzalaguna egitasmoa. Euskara praktikatzeko taldeak sortzen ditu. 943 655 004 / koordinatzailea@galtzaundi.com



Mintzalaguna taldeak koordinatzeaz arduratzen den Idoia Lahidalgarekin bildu da Galtzaundi aldizkaria. Bien iritzian, euskaraz hitz egiten ez dutenengana hurbiltzeko beharra dago. Hala azaldu digu Uzkudunek: "geroz eta jende gehiago datorkigu atzeritik eta, euskararen bitartez, herrian integratu behar ditugu. Euskalduntzeko bideen berri emateko, euskaraz hitz egin nahi duen komunitate euskaldunak euskaraz ez dakitenekin zubiak eraiki behar ditu". Etorri berriengana nahiz

Tolosan jaio arren euskaraz hitz egiten ez dutenengana iristea da helburua. Mikel Uzkudunek adierazi digunez, "Udal Euskaltegiak galdetu eta oraindik tolosar askok non dagoen ere ez dakiela konturatu gara. Horregatik, tolosarrei eta Tolosara etorri berri direnei begira antolatu ditugu ate irekiak".

Iritzi berekoa da Idoia Lahidalga eta, datuak eskuan, tolosarren %64,54 euskaraz komunikatzeko gai dela azaldu digu. Lahidalgak gaineratu duenez, kopuru horri euskaraz ulertzeko

eta, zailtasunak zailtasun, euskaraz komunikatzeko gai den herritarren beste %21 gehitu behar zaio. Euskara ulertzen ez dutenak, berriz, tolosarren %14,4 dira.

Hizkuntza bat edo bestea erabiltzea faktore ezberdinek eragin dezakete, besteak beste, hizketaldiko lagun gehienak euskaldunak izanik ere, batek euskaraz arintasunez aritzeko nahiko jarri ez izateak. Hala ondoriozta daiteke iaz Galtzaundik egin zuen erabilera neurketan. Izan ere, zailtasunekin edo gabe, tolosarren %86k du euskaraz komunikatzeko gaitasuna. Erabilerari dagokionean, ordea, batu baino gutxiti egiten da kopurua. Galtzaundik iaz egindako erabilera neurketako datuen arabera, populazioaren %43k egiten du Tolosako kaleetan euskaraz. Datuek nabarmen gora egiten dute tartean haurrek daudenean eta, aldiz, behe-er, hizketaldian adineko pertsonak ari direnean.

Idoia Lahidalgaren ustez,

"euskararen alde egotetik, euskaraz bizitzeko pausoa ematera pasa behar gara, horrek ziurtatuko duelako euskararen geroa. Beraz, mintzalaguneko partaideek urte osoan zehar egiten duten modura edo Korrikako eta Kilometroetako leloek dioten bezala, euskara elkarri eman behar diogu, euskara ahora eman behar digu".

Ezagutza eta erabilera datuak jakinik, euskaltegian zenbat lagun ari diren euskara ikasten galdetu diogu Mikel Uzkuduni. Bere esanetan, "azken urteetan ikasle kopurua 200 eta 250 lagun artean mantendu da. Egun, 250 lagun ari dira euskara ikasten".

Duela 30 urte ireki zituen ateak Tolosako euskaltegiak eta Uzkudunen esanetan, "garai haietako egoera bestelakoa zen: askok eta askok ez zekien euskara eta, goiz eta gau, euskaltegia beteta egoten zen. Hezkuntzan D eredia abian jartzearen ondorioz, gazte ia denak euskaldunduta datoz. Hala ere, oraindik, euskaraz


komunikatzeko gaitasunik ez duen talde handia dago".

Horregatik, "egiten ari garenarekin jarraitu egin behar dugu, beharra badagoelako", esan du. Halaber, sektore ezberdinak -3. sektorea, lan mundua,...- euskalduntzeko leloak ematen ari direla jakinarazi du eta, aurreratu digunez, "gure etorkizuna sektore horiek euskalduntzean egongo da".

### Urratsez urrats

Uzkudunek azaldu digunez, euskaraz trebatzeko "elkar osagarriak diren egitasmoak" daude Tolosan. "Kanpotik datozenek euskararekiko lehen harremana hotzean euskaltegiarekin egin beharrean, Banaiz Bagararekin egin dezakete, hala nahi izanez gero. Lehen urrats hori eman eta gero, bigarren urratsa etorri behar da: Udal Euskaltegi gerturatzea hizkuntzan sakontzeko, hizkuntza horretan trebatuz euskaldun izatera ailegatzeko. Eman beharke hiru garren pausoa, berriz, komunikatzeko gaita-

sun hori kanpora ateratzea da eta, horretarako, Galtzaundik koordinatzen duen Mintzalaguna egitasmoa dago. Beraz, hiru atal horiek osagarriak dira eta osagarritasun hori bultzatu egin behar da egitasmo horiek gauzatzen dituzten Banaiz Bagara, Aitzol Udal Euskaltegia eta Galtzaundi euskara elkartearen artean".

Aitzol Udal Euskaltegia sortu zen urtearen bueltan etorri zen Mila Canseco Tolosara bizitzera. Zestoan, lagunartean, euskaraz egiten zuen arren, Tolosan herritarren gehien-goak gaztekeraz egiten ziola jakinarazi digu eta, ondorioz, euskaraz hitz egiteko bizitasuna galdu egin du. Euskaraz hitz egiteko jarria indartu nahian, lehenik Aitzol Udal Euskaltegian eta, ondoren, Mintzalaguna egitasmoan izena ematea erabaki zuen. Halaber, lagunei euskaraz zuzentzeko eskatu zien. Hartutako bidearekin oso gustura da Mila Canseco, bere esanetan, "euskaraz errazago eta gehiago" hitz egiten duelako. 

**Xirimiri**  
Txokolategia  
Xabier Izagirre

**Gosariak eta meriendak**

Tel.: 943 675 223  
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

**ELUSTONDO**  
ELEKTRIZITATEA

Argi lanak  
Iluminazioa  
Antenak  
Iurre, 4 (Mustad)  
943 672 300  
Amaroz, 21.  
943 675 513  
20400 TOLOSA

**Zumardi**

SEGURAS  
BILBAO



Aholkularitza  
integrala

Laskorain, 8-behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 651 877

**Martin**  
Eceizabarrena

Instalazio  
erreforma  
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa  
Tel.: 943 672 445  
Mobiela: 608 774 822

jarri zure  
publizitatea  
**Galtzaundi**  
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6  
20400 Tolosa  
publizitatea@galtzaundi.com  
943 655 004  
www.galtzaundi.com

## Eta Ibarra "hilik" dagoela diote...



Prensa Tailerra  
Uzturpe ikastola

Prensa tailerrean gaude, Uzturpeko gure ikasgelatik Ibarrari begira. Kamioak herri gaineratik igarotzen ikusten ditugu, elkarren atzetik. Mendi ederrak txikitzen ikusteak ere min handia ematen digu, AHTaren obrak direla eta. Ibarra etxe multzoei erreparatu diegu jarraian.

Neurri, estilo eta kolore desberdinetakoak dira; modu desordenatuan sakabanatuta daude errekarren bi aldeetan. Gainera, zabor poltsak daude zintzilik hainbat leihotatik... Ez, onartu behar da ez dela gurea Euskal Herriko herririk politena.

Gaur 14:00etan aterako gara ikastolatik. Zer egingo dugu arratsalde honetan? Seguruenik ez gara Gaztetxetik aterako, ez baitakigu zer egin. Kiroldegiaz aparte ez dago besterik gure herrian. Ez legoke gaizki zine-areto herrikoi bat (ohi baino merkeagoa) eraikitzea. Lana eta aisialdirako aukera bat eskainiko luke. Bai, gazteok kexu gara beti...

Momentuz, Ibarra biziberritzeko aukera erreago bat Gaztetxeak eskaini dezake. Izan ere, aurten hogeitau urte beteko dira Ibarra Gaztetxea martxan jarri zenetik. Hori dela eta, era askotako ekintzak burutuko ditugu, hots, antzerkiak, dokumentalak, kontzertuak... Ikusi al zenuten Vendetta musika taldea? Pablo Hassel ere izan zen gurean, bai eta Berri Txarrak, Fiemo... eta etorriko direnak! Mendira ere joan ginen elkarrekin, aldi behin komenigarria baita Ibarra urrutitik, edo alturatik ikustea.

Txiribitu aisialdi taldeak ere hogeitau urte bete ditu aurtengoan. 100 bat gazte mugiarazten dituen elkarrekin jo ta fuego ari da berriki, asteburu-pasak, udalekuak eta konpartsak antolatzen... Gaztetxeko ekintzekin gertatu bezala, gu gara Txiribituren motorra, guretzako,

Ibarra gazteontzako, baitira onurak.

Gazte gutxi dira Ibarra Gaztetxetik pasatzen ez direnak, edo Txiribiturrekin inoiz ez bat egin ez dutenak. Izan ere, gehienok gertutik ezagutzen ditugu bi kultur eta aisialdi eragile hauek.

Eta, hala ere, Ibarra "hilik" dagoela diote batzuk... Ziur gaude etxetik nekez ateratzen direla, herria, eta mundua oro har, bideojoku baten bidez ikusten dutela, edo saiatu behintzat bai. Zeren zain daude? Beste batek, kultura, aisialdia eskaintzeko zain? Gauza guztiek bezala, herritarren artean sortu behar dira gazteontzako aukerak: behetik gora, eta ez alderantziz. Hauxe da bide zuzenena agintari "goren"en eskuetan ez erortzeko, euren dotrinaz "domestikatuak" ez izateko.

Hemen denok izan behar dugu parte-hartzaile. Gure eskutan dago, hein handi batean, Ibarra Tolosako "logela-auzo" ez bilakatzea; funtsean, hiltzea.

# ZORROZTU ZURE ETORKIZUNA

Goierri Eskolak **Ate Irekien Jardunaldira** gonbidatzen zaitu.

Ezagutu ezazu **Lanbide Heziketako** gure eskaintza.

- Erdi Mailako zikloak
- Goi Mailako zikloak
- HLPP - PCPI

**Maiatzak 4, larunbata, 10:00etan**

Arranomendia, 2 • ORDIZIA • 943 880 062

Goierri  
eskola

[www.goierrieskola.org](http://www.goierrieskola.org)

Zeure begiz ikus ezazu. Klik batekin informa zaitetz.

Kristalezko begi bat

# Miren Agur Meabe

## “Esperientzia mingarri bat prosan adierazteko helburua jarri nion neure buruari”

Miren Agur Meabek “Kristalezko begi bat” autofikzio lanean erabat biluztu egiten da hasierako esaldietatik: “begi bat galdu nuen nerabezaroan; minbiziz hil zitzaidan ama; dibortziatua naiz eta seme bat daukat; enkarguzko lanak idaztetik ateratzen dut bizibidea; berriki utzi egin dut maite-laguna eta harrezkero gaixotuta nago...”. Honako hitzek ageri duten sinesgarritasun, benetakotasun eta indarrez azaldu da Miren Agur Meabe Tolosara. Izan ere, Galtzaundi Irakurle Taldean hizlari izan da, “Kristalezko begi bat” beso azpian duela, irakurleekin aurreneko solasaldia izan asmoz.

Naiara Roldán de Aránguiz

Non aurkitu duzu “Kristalezko begi bat” idazteko arrazoia eta bultzada? Liburuan “editore baten desafiari erantzuteko” arrazoia ere aipatzen duzu...

Nobelaren muinean haustura sentimental bat dago eta, hausturaren jatorrian, sentimenduak neurtzeko edota adierazteko moduek eragindako gatazka. Liburuaren sarreran agertzen den Petrararen esaldiak lagun dezake hori ulertzen: “Zenbat maite duen adieraz dezakeenak ez du asko maite”. Alegia, maitasuna nola agertzen dugun eta nola agertzen diguten, modu horiek betetzen gaituzten edo ez, eta horren ondorioak, horiek izan ziren idazten hasteko arrazoiak. Esperientzia mingarri bat prosan adierazteko helburua jarri nion

neure buruari. Alde horretatik lotzen da liburu hau editore batek aspaldi botatako erronkarekin, neure buruaz idatzi arren, beste ikuspuntu batetik eta beste tonu batekin egiten saiatu naizelako.

Batzuek “autobiografia” gisa definitu dute zure lana; zuk, ordea, “autofikzio” eta “autoimitazio” terminoak erabili nahi izan dituzu.

Autobiografiaren premisa errealitatearekiko leialtasuna izaten da; autofikzio edo autoimitazioarena, ordea, errealitatearen mimesia: abiapuntua esperientzia erreala izan arren, zatiak asmatu daitezke, gaiaren zerbitzura. Adibidez, gogoeta bat girotzeko, edo elkarriketak kontestualizatzeko, beharrezkoa da nolabaiteko dekoratua jar-

tzea. Xehetasun batzuk nabarmendu egiten dira, edota beste batzuk isildu, interes literarioak eraginda.

Azken kapituluan, gainera, dena ez sinisteko esaten diozu irakurleari...

Hala esaten da azken orrietan, testuaren eta kristalezko proteziaren arteko konparazioa egiten denean: kristalezko begia ez da benetako begia, benetakoaren kopia errealista bat baizik. Beraz, artificio literario bat eraiki dut, zeinaren zutarrak askotarikoak diren: bizi izandakoa, ustez bizi izandakoa, bizi nahi izandakoa, bizi gabekoa... “Paperezko ni” bat sortu da, hezur-haragizkotik aparte, nire niaren proiektzioen batura dena.

“Eta denok bagara fikzioen sortzaileak? Eta denok asmatzen badugu gure bizitzaren historia?” dio Coetzee. Ideia hori da funtsa: pasadizo arrunt bat, edonorenarena izan litekeena, emaitza literario bihurtzeko aukera dugu; eta gainera, geure bizitza kontatzean, bertsio libreak egin ditzakegu.

Edonola ere, liburuak “ni” horri begiraten dio. “Autobehaketa sorkuntzaren abiapuntua eta xede” dela aipatzen da.

Horregatik begiaren sinbologia. Begia aztertzailea da, eta halaxe betetzen du bere eginkizuna: izatea arakatzeko eta oroi-mena berreskuratzea. Sinbolo hori guztiz lotuta dago testuaren estiloarekin, hurbilago dagoe-

lako eguneroko edo koaderno pribatuaren estilotik nobela hutsarenetik baino. Koaderno edo egunerokoa nitasunaren literaturaren formatoa izaten da, formato hibrido bat, denetarik bil dezakeena: gogoeta solteak, oroitzapenak, uneko bizipenak, gutunak, gertaerak, ameskeriak, poemak... Norberaren intimitatea da, aldi berean, lehengia eta produktua. Dena den, “nitasuna” konstante bat da nire lanetan; hau ez da salbuespena.

Liburuan azaldutako gai asko eta asko euskal literaturan gehiegi landu gabekoak dira (menopausia, mamografiak, adin “arriskutsuko” emakume baten sexu grina, maitasun zapuztuaren ondorengo pentsamendu eta jarreak...). Irakurleek benetakotasun eta ausardia hori eskertu dute?

Dudarik gabe. Mezu ugari heldu zait, esanez identifikatu egin direla liburuan bere arima biluzten duen emakumearekin, zerbait ikasteko balio izan diela, ez zaiela gertatu “beste” irakurketa bat... Eskertzen diet harrera bero hori.

Izan ere, protagonistak bere arima eta gorputza deskribatzen ditu, xede batekin: “Nor naiz ni?” galderari berriz erantzutea “adin arriskutsua” deritzon garaian, hau da, menopausiaren sasoiaren. Trantsizio garaiko asaldura fisiko eta emozional horiek guztiak naitzen emakumearen ikuspuntutik azalduta daude eta, gordintasuna gorabehera, bertsio sinesgarri eta hunkigarria iruditzen zaie irakurleei.

Ezinbestean aipatu beharreko beste gai bat: kristalezko begia, liburuaren haria. Objektu moduan aurkezteaz gain gabeziaren metafora ere bihurtu duzu.

Kristalezko begiak zenbait balio ditu kontakizunean: batetik, balio erreala bat, nire identitate-marka

bat delako, falta zaidan begia ordezkatzeko duen protesia; beste alde batetik, balio metaforikoa du, bizitzan izandako galeren sinbolo gisa erabiltzen dudalako; eta azkenik, balio literarioa ere bai, literaturaren historian antzinatik eta sarreran agertzen den topiko bat delako. Nik, halaber, neure topiko bihurtu dut, liburu atalen irradiazio-puntutzat hartuz: bertatik sortzen dira narrazioaren atalak, lotura inplizitu edo esplizituagoak eginez.

Adibidez?

Begiari buruzko azalpenak lotuta daude istorioan kontatzen denarekin, eta oroitzapenen, egoeren eta jazoeren aurrerapena egiten dute. Esate baterako, *Enukleazioaren teknika* atala, ondoren etorriko den disezio psikologikoaren sarrera da; *Kristalezko begiak patologia kongenitoen kasuan* atala amaren irudiaz mintzatzeko aitzakia da; *Begi galtzeko arrazoiak* atalak protagonistak perspektiba galtzeko duen arriskua iradokitzen digu; *Monofthalmia* eta eguneroko bizimoduaren atalak badu zerikusirik jarraian azalduko den emakume lanpetuaren egunerokotasunaz, eta abar.

Hizkuntzari dagokionez, erabat aberasgarria da “Kristalezko begi bat”. Zenbait hitzek Miren Agur Meaberen luman jatorria al dute: sortutakoak, asmatutakoak al dira?

Ez dut hitzik asmatu, honako eta halako hiztegi eta liburuetatik hartu ditut. Gure obligazioa da ahalik eta adierazmolde pertsonalena lortzea, hizkuntza dugulako artea egiteko tresna. Zaila egin zitzaidan gogoetak zehaztasunez eta gardentasunez adieraztea, baina behin eta berriz berridatzi ditut, tokiz aldatu ditut pasarteak, hitzak ordezkatu di-







Amaia Etxetxia  
Nutrizio aholkularia



Digestio-arazoak? Askorentzat egoera hau ez da hain arraroa, ezta? Tarteka beherakoa sortzen duena, oso desatsegina batez ere sabeleko minekin azaltzen denean. Beherakoa maiz, likidoa libratu behar izateaz gain, ahultasun sentazio orokor batekin agertu ohi da. Prozesu honetan, ura eta elikagaiak heste mehar eta heste lodian pilatzen dira eta ez dira xurgatzen hantura baten ondorioz, hesteetako paretan infekzio bat dagoelako, hesteetako mugimenduan alterazio bat dagoelako edo oztopo bat azaltzen delako, hesteetako edukia aurrera joatea oztopatuz.

## Koxk! Digestio arazoak... Zeliakia?

Beherakoaren jatorria oso desberdina izan daiteke; estresa adibidez, elikagai konkretu batzuk gehiegi jatean (adib. aranak), egoera txarrean dauden elikagaiak jatean edo zenbait botiken eraginaren ondorioz (adib. antibiotikoak). Baina zenbait gaixotasunen ondorioz ere eman daiteke, noski.

Beherakoa, hestearen paretan narritadura bat ematen denean azaltzen da, bai infekzio baten ondorioz, substantzia toxiko edo pozoitsu baten ondorioz eta baita arazo organiko baten ondorioz ere, adibidez absortzio arazoak daudenean, zeliako gaixotasuna adibide delarik.

Baina zer da zeliakia? Zeliakia arazo autoimmune bat da; sistema immunologikoak glutenaren aurrean erreazionatzen duela. Glutena, garia, garagarra eta zekalean dagoen proteina mota bat da. Zenbait pertsonak olatuaren aurrean ere erreakzioa izaten dute. Glutena degradatzen denean, gliadina izeneko konposatu bat ematen du eta gliadina honek

erantzun immunoaktibo bat eragiten du, hantura eta suntsidura zelularra eraginez. Egoera honetan heste meharreko estaldura kaltetuta gelditzen da eta ondorioz, elikagaien absortzio oker bat ematen da eta honek, urritasun nutrizionala, anemia eta osteoporosia izateko arriskua handitu egiten du.

Sintomak oso desberdinak izan daitezke, apetituaren galera, pisu galera, gonbitoak, beherakoa, distentsio abdominala, tripartuko minak, anemia, burdin faltagatik adibidez. Beste seinale batzuk ere batera ager daitezke, adibidez, Dermatitis Herpetiformea, aftak, neruopatiak, nefropatiak, anemia ferropenikoa edo artritis.

Zeliakia ez da beti detektatzen edo ongi diagnostikatzen sintomatologia ez delako beti oso espezifiko eta batzuetan sintomak ere ez dira agertzen, hesteetako arazo txikiekin nahastuaz. Gainera, askotan pentsatzen da zeliakoek pisu baxukoak izan behar dutela baina ez da beti horrela izaten. Gaur egun, oro-

korrean, zeliakiaren susmoa dagoenean, dietako glutena kendu edo ezabatu aurretik diagnostikoa egitea gomendatzen da. Honetarako odoleko analisisia egiten da, eta, gabe heste meharreko biopsia ere (medikuak erabakiko du kasu bakoitzaren ezaugarri eta analisisietako emaitzen arabera).

Dirudenez, kasu hauetan, bizitzan zehar glutenik gabeko dieta eramateak, heste meharra berriz osatzea posible egiten du. Orokorrean glutena, ogia, gosarietako zereal, pasta, pizza, pastelak eta galletekin erlaxionatzen dugu. Baina glutena, zenbait elikagaien egitura hobea emateko ere erabiltzen da (saltxitak, zopak edo saltsak). Edari maltatuetan edo zerealeetatik lortzen diren edarrietan ere aurki daiteke (adib. garagardoa eta zenbait likore).

Jakin gabe edo konturatu gabe glutena kontsumitzea gerta liteke ere, adibidez, kutsadura gu-



rutzatuetan. Zeliakia duten pertsonak, glutenarekiko sentsibilitatea oso desberdina agertu dezakete, eta gomendagarria da beti glutenik gabeko elikagaiak tresna independenteekin prestatzea, kasu batzuetan traza txiki batek erreakzioa sortu dezakeelako.

Gaur egun, elikagaiak etiketatzen orduan, glutenarekin erlaxionatutako legeak gero eta zorrotzagoak dira. Elikagai bat produzitzeko orduan glutena erabiltzen bada, etiketan azaldu egin behar da. Bai ekoizle eta bai merkataritza mailan, sinbolo bat erabiltzen da (ale marratu baten itxurarekin) zeliakia duten pertsonen ezagutzen dutena eta noski, modu honetan, beraientzat seguruak diren produktuak aukeratzeko asko laguntzen zaie.

ohitura bat da niretzat, inspirazio segurua...

**Nolakoa izan da idazketa prozesua? Zer nolako sentazio eta sentimendua izan zenuen lana amaitzerakoan?**

Neure bizitzako galeren zerrenda eginez hasten dut kontakizuna. Galera transzendentek aipatzen ditut, baita garrantzi gabekoak ere, tragikotasunari umorearen kontrapuntua jarriz. Neure buruz, inguru hurbileko pertsonen, maitasunaz, eta neure unibertso pertsonal nahiz literarioa osatzen duten elementuez mintzatu ahal, balantze orekatua egiten dut azkenean.

Bilakaera hori idazketan bertan islatzen dela uste dut, badagoela ilunetik argirako bide bat. Azken atalak laburbiltzen du sentazio orokorra: argumentu sinple bat esaldi zehatzetan eta logikaz trenkaturiko paragrafo laburretan ematea nuen helburua, neure bizipenen bermearrekin, heltzearen itxaropenaren bulkadarekin.

**Idazketa prozesu horren berri irakurleak askotan badu liburuan barrena: zenbait kapituluena amaierako oharra, idazketari buruzko gogoetak, aipu literarioak...**

Hasiera-hasieratik, narratzaileak itun bat egiten du irakurlearekin: "zu" bati zuzentzen zaio, konplizitatea bilatzen du, eta galderak egiten dizkio, zalantzak aurkezten, baita justifikazioak ematen ere, beste aldean dagoen solaskide isil horren erantzunak eta kritikak sumatzen dituenean. Intimidade paradójikoa gertatzen da: irakurtzeko ekintzan, irakurleak, bere ahots mutuaren bidez, berpiztu egiten du egilearen ahotsa eta berarena ere aurkitzen du. Horregatik oin-oharrek, adibidez, irakurleari ere erantzuteko txanda emateko.

Eta horiekin txirikordaturik, bai, idazkuntzari buruzko gogoetak: patchwork edo collagearen teknikaren balioa, edo bizitzaren eta obraren arteko antzekotasunak; min pertsonalari etekin literarioa ateratzearen zilegitasun; sentimentalismoaren arbuioa; erreallitatearen eta fikzioaren arteko bana-lerroaren ausia; biluztasunaren prezioa...

Aipuei dagokien, egia da, hainbat esaldi biribil ageri dira, magnetikoak, beste idazle askori hartuak, hitzez hitz nahiz parafraseaturik. Batzuek begiari egiten diote erreferentzia, bortxaz galdutako adibideen erakusle (Castelao, Malaparte, Izagirre, Winterson...); beste batzuek pertsonaiaren burutazioekin dute lotura, haren premiekin eta ziurtasun-nahiarekin. Gizakiok geure ideiak eratu beharra dugu maitasunari buruz, adiskidetasunari buruz, askatasunari buruz... aldi berean abstraktuak eta konkretuak diren kontzeptu horiei buruz, guztiz garrantzizkoak ditugulako geure bizitzaren noranzkoa bideratzeko. Hala gertatu zait niri Rich, Oates, Munro, Von Arnim, Heylbrun, Thomas, eta abarrekin.

**Azkenik, Irakurle Taldean izan zaitugula kontuan izanik, zer nolako garrantzia dute idazle batentzat irakurleekin zuzenean egoteko tankerako ekimenek?**

Aberasgarriak izaten dira halako topaldiak: batetik, liburuaren inguruko hainbat azalpen osagarri baina garrantzitsu emateko aukera ematen digute; bestetik, praktikan ikusten digu irakurleak zertan datoz bat eta zertan ez, zer estimatu duten eta zer ez zaien iritsi... Saio guztietatik ateratzen dut zeri egin kasu, eta batez ere, langintza honen zentzua berres-tereko balio izaten didate.

# Tortura Sistematika, hiru hamarkada atzera eginez

Tortura Sistematika bueltan da. Joxi Ubeda, Lamberto Perurena eta Shanti Iribar ez dira berriro ere eszenatokietara igoko "Anarkia eta pakea oihukatzen duk", "Deseo libertario" edo "Atrapados por el sistema" bezalako abestiak interpretatzera. Baina, taldea sortu zutenetik 28 urte igaro diren honetan, "Todos somos culpables. Live & Demo Collection 84-85" CDa kaleratuko da datorren ekainean. Proiektua eginda etorri zaie Tortura Sistematikako taldekide ohiei, Asturiaseko David Von Rivers musikazale gaztearen ekimenez kaleratuko baita honako lana.

Naiara Roldán de Aránguiz

Joxi Ubeda, Lamberto Perurena eta Shanti Iribar bildu nahi izan ditugu berriro ere Tortura Sistematika musika taldea eta orduko garaia gogoratu asmoz. Proiektua zein garaia gogoratzearekin batera, barreak izan dira elkarrizketaren haria. Izan ere, Tolosako talde honen musika entzutea "tortura sistematikoa" omen zen, CDaren hitzaurrean Yurre Ugarte idazle eta taldekideen lagunak idatzi bezala. Tortura Sistematikak 80. hamarkadaren hasieran du bere jatorria, Tolosan bertan sortu zen. Hardcore-a zen Tortura Sistematikak sortzen zuten musika, azkarra, ia abestutako

letrak ulergaitzak izateraino. 1984. urtean taldearen maketa bakarra kaleratu zen, guztira 12 abesti, iraupenez 20 segundokoak. 1985. urtean, sorreratik urte t'erdira, taldea desegitearekin batera, Shanti eta Lamberto Ruido de Rabia taldeko partaide bilakatu ziren eta Joxi Ubeda Bukaera taldekoa. Tortura Sistematikaren CDa osatzeko, aldeztu aurretik, saiakera gehiago ere izan direla kontatzen dute hiru musikariek. Materialaren kalitateak asmoak atzera botatzen zituen ordea. Izan ere, grabaketa gehienak lokaletan irrati-kasetarekin egindakoak dira, baten bat

soinu-mahaian grabatutakoa da, "baina dena oso kaxkarra", diote irribarre ahoan dutela. CD berri horri begira abesti batzuk bermasterizatu dituztela aurreratu dute musikariek.

Oraingoan grabazio horren bilketa lanaz Asturiaseko David Von Rivers arduratu da. Joxik, Lamberto eta Shantik etxean garai horretako inolako grabaketarik jasota ez dutela aitorturik, Daviden maketa lanak internetera eta ezagunengana bideratu dira. Lamberto eta Shantik asturiarraren Tortura Sistematika taldearekiko interesaren zergatiaren berri eman dute:

"80. hamarkadako informazio pila du jasota, bera bezalako jende ugari dago, garai hura bizi ez eta idealizatuta dute", dio Lambertok. Shantik ordea Davidek burututako kazetari lanari egin nahi izan dio erreferentzia: "Estatu espainiarreko muturreko musikari buruzko liburu bat ari da idazten. Liburuan Tortura Sistematikak eta Ruido de Rabiak kapitulu handi bat osatzen dute".

aritzen ziren Tortura Sistematikako partaideak 18-19 urte bitarteko gazteak ziren, zabaldu nahi zituzten mezu eta ideiak oso argi bazituzten ere, "musika bigarren mailako tresna" zen eurentzat.

Duela 28 urte sortutako letrei erreparatu gero egun ahoz-ahoz jarraitzen duten hainbat gai antzeman daitezke: okupazioa, gerrak, kartzelak, tortura...

Hizkuntzari dagokionez, orduko egoeraren isla modura, gaztelaniaz zein euskaraz osatzen zituen bere abestiak Tortura Sistematikak. Euskarazko lehen hardcore abestia sortu zuen Tolosako taldeak: "Zer zarete Estatuarekiko".

## Kontzertu eta abesti gogoangarriak

Debako kontzertu bat eka- rri dute gogora Joxik, Shantik eta Lambertok. Cicatriz eta Rip bezalako taldeen ondoren taularatzea zegokion Tortura Sistematikari. Egunsentia zela Fermin eta Iñigo Muguruza espontaneo bezala taula gainera igo eta kontzertua eskaini omen zuten, segidan Tortura Sistematikaren txanda izan eta publikoaren erantzuna aho-batekoa izan omen zen: "Tor-tu-ra no, Kor-ta-tu si", gogoratzen dute barreari eutsi ezinik. Eszenatokiak publikoaren erantzuna

## Jarrera eta mezu kontua

"Zarata hutsa zen egiten genuena, bakoitzak bere aldetik jotzen zuten; jotzen jakin gabe jotzera ateratzen ginen", gogoratzen du Joxi Ubedak. Eszenatoki gainean

jaso zuen, lataz bete zen, musikariei botatako edari lataz, hain zuzen ere.

Abesti mitikoaz hitz egiteko orduan, "Guazten etxera" aipatu beharra dago. Lambertoren amonak beti esaten zuen esaldi batetik sortutako abesti hau kontzertuetako azken kanta bilakatu zen. Shantik gainontzeko abestiek aldea zuela aipatzen du: "beste abestiek konparatuta pop kutxu bat dauka, melodikoagoa da, abestea posible da, besteak ordea ezin ziren ez abestu ezta tarareatu ere". Izan ere, Joxik onartzen duen moduan muturreko musika zen Tortura Sistematikak egiten zuena: "guri kanpoko gauza extremoak gustatzen zitzaizkigun baina guk oraindik gauza extremoagoak egiten genituen".

## Bizitako esperientzia

Azkenik, Joxi Ubedari, Lamberto Perurenari eta Shanti Iribarri gaurko prismatik begiratuta (Lamberto margogintzan murgildurik dago, Joxi kazetari lanetan dihardu eta Belarmiñak du azken musika proiektua eta Shanti Lobo Electricorekin maitatzen du azken kontzertua) Tortura Sistematikarekin bizitakoa nola gogoratzen duten azaltzeko eskatu diegu. "Iribarre batekin" izan da euren erantzuna.



**Saldias Miguel**

**CORREDURIA DE SEGUROS ASEGURUETAKO ARTEKARITZA**  
N. D.G.S. J.1759

Bizi-asegurua  
Kotxe-asegurua  
Istripuak  
Gaisolasunak  
Ospitalizazioak  
Subsidioak  
Lan-istripuak  
Enpresa txiki eta ertainak  
Erantzukizun zibila  
Etxe-asegurua  
Denda-asegurua  
Erretiroak  
Inbertsio fondoak

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea  
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462  
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
[www.saldias-miguel.com](http://www.saldias-miguel.com)

01001001  
00111100  
00111100  
00111100

**Tolosa Bit**  
Informazioa Zertutarak.  
Ordezkapenak eta konpainiak  
Espres eta partikularmentak  
Mantentzenak

Oria kalea, 14-behea  
Tolosa - Tel.: 943 676 156  
Faxa: 943 016 857  
[tolosabit@facilnet.net](mailto:tolosabit@facilnet.net)  
[www.tolosabit.es](http://www.tolosabit.es)

**HALCON**  
BIDAIAK

*Bidaiarik erakargarrienak*

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxa: 943 674 113

**errrotatxo**  
**okindegia**

Andia kalea, 3      Amaro, 9-A  
Tel.: 943 655 492      Tel.: 943 671 038

## irakurri entzun Ikusi

Hormako paper horia  
Charlotte Perkins-Gilman  
Itzulpena: Ana I. Morales  
Hitzostea: Saioa Ruiz eta  
Amaia Serrano

Logela batean atseden hartzera behartu dute Jane. Isolatuta sentitzen da, itogarria egiten zaio lekua. Hormetako irudi arraroak aztertzen hasten denean, espero ez zuena aurkituko du, eta itzulerarik gabeko egoera batera iritsiko da.

Konfeti Kolore  
Emon

Emon taldearen bigarren diskoak "Konfeti Kolore" du izenburua. Emon taldearen musika kolore anitzeko konfeti amaigabea da, propio eginda jaia, dantza eta alimaleko festa antolatzeko une oro. Emon taldeak eskainiko dizkigun erritmoak beroaren bila doazenak dira. Beti bero, beti goxo, beti dantza, beti pentsatzeko prest.

Oinaze Egoitzak  
Erabaki Produkzioak

Laburmetraia. Bi pertsonaia bereziren arteko ezinezko amodio batek, beraien ahuldade eta gabeziak azaleratzen ditu.

# hitzordduak

Apirilaren 26tik maiatzaren 10era bitarteko

## Ipuin Txokoa

**Apirilak 26, ostirala.** 3-6 urte bitarteko haurrentzat eta uren gurasoentzat. Kontalaria: Miriam Mendoza. Tolosa, Errota Haur Liburutegia. 18.00

## Kontzertua

**Et Incarnatus + Haur Abesbatzak.** Benito Lertxundi kantatuz. Apirilak 26, ostirala. KMK13. Tolosa, Leidor. 20.30  
**Tooth eta Meido.** Apirilak 26, ostirala. Tolosa, Bonberenea. 22.30  
**Talco (Italia).** Apirilak 30, asteartea. Tolosa, Bonberenea. 22.30  
**La Jodedera.** Apirilak 26, ostirala. Tolosa, Orbela Taberna. 23.00



**Rei Kimera.** Apirilak 27, larunbata. "La puerta de los mil ojos" disko berriaren aurkezpena. Sarrera doan. Tolosa, San Esteban auzoa. 22.00

## Antzerkia

**Publikoari gorroto.** Artedrama. Maiatzak 3, ostirala. Tolosa, Leidor. 20.30

## Dantza

**Oriako Barandila.** Ballet erakustaldia. Tolosa, Zerkausiko Terraza. 12.00

## Azoka

**Elkartasunezko merkatua.** Maiatzak 2-6. Tolosa

## Irteera

**Sagardotegira irteera.** Apirilak 27, larunbata. Bedaiotik. Artubi elkarteak antolatuta.

## Erakusketa

**Hautsi da Anphora.** Ines Gonzalez de Zarate eta Loli Pinedo. Zeramika erakusketa. Maiatzaren 10a bitartean. Tolosa, Aranburu Jauregia  
**Ura, ibaiak eta herriak.** Naturaldia. Maiatzaren 10a bitartean. Tolosa, Aranburu Jauregia  
**"Zelanda Berritik" argazki-erakusketa.** Apirilaren 30a bitartean. Ibarra, Kultur Etxea.

## Hitzaldia

**Matematikariok herensugeak harrapatzen irakasten al dugu?** Maiatzak 7, asteartea. 17.15-18.30. Tolosaldea GLHBiko Ikasmina: herriz herri egitasmoak antolatuta. Hizlaria: Raul Ibañez. EHUKo Geometria eta Topografia irakaslea. Izena emateko: 943 65 11 47, 615 77 56 78 edo ikasekin@tolosaldea.com

**Paseo matematiko bat heda-bideetatik zehar.** Maiatzak 7, asteartea. 19.15-20.45. Tolosaldea GLHBiko Ikasmina: herriz herri egitasmoak antolatuta. Hizlaria: Raul Ibañez. EHUKo Geometria eta Topografia irakaslea. Izena emateko: 943 65 11 47, 615 77 56 78 edo ikasekin@tolosaldea.com

## Kirola

**Ehun Milak mendi lasterketa-kor arropa salmenta.** Apirilak 27, larunbata. Abaltzisketa, Larriz Gain jatetxea. 17.00-19.00

## Orexako Festak

**Maiatzak 3, ostirala.** 11.00etan hasita diana, oilar jaitsiera, herrikoen artean raketa apus-

tua eta jokoak, pintxo lehia-keta, Txiki eta Jon Plazaolaren bakarriketa saioak, areto futbol saioak eta afari merienda Eneritz eta Eider trikitilariak alaiturik.

**Maiatzak 4, larunbata.** 16.30ean hasita ume jolasak eta puzgarriak, batukada emanaldia herrikoen eskutik, herri afaria, La Jodedera eta DJ Bull eta handi jolasak ea baratzuri zopak

## Ikastaroa

**Emozioen kudeaketa.** Maiatzak 9, 10, 16 eta 17. Karmele Gurrutxaga psikologoaren eskutik. Menpeko pertsonak zaintzen dituzten familiei zuzenduta. Izena emateko: 943 65 47 68. Alegia, Kultur Etxea.  
**Apirilak 30, asteartea.** "Zurrunmuruaren aurkako erantzunak". Hizlaria: Agustin Unzurrunzaga. SOS Arrazakeria. Villabona, 18.00. Mintzola Fundazioak antolatuta. Izena emateko: 943 654501 edo inmigrazioa@tolosaldea.net

## langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

Langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik. Lanbideak diruz lagundua

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Raul Ibañez: Herensugeak harrapatzen irakasten al dugu matematikariok?	2013.05.07	2
Raul Ibañez: Paseo matematiko bat hedabideetatik zehar	2013.05.07	2
Ate Irekien Jardunaldia Tolosaldea GLHBIn	2013.05.08	17.00-20.00

Hitzaletan parte hartzeko ezinbestekoa da izena ematea. Doakoak dira

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu?  
Jo ezazu Tolosaldea GLHBiko bulegora.  
Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa  
Telefonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com  
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com  
www.ikastn.com



## Goardiako farmaziak

<b>Ostirala, 26</b> Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	<b>Asteazkena, 1</b> Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	<b>Astelehena, 6</b> Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa
<b>Larunbata, 27</b> Olarreaga M. (Martin J. Iraola 10) Tolosa	<b>Osteguna, 2</b> Morant R. (Zabalarreta 1) Tolosa	<b>Asteartea, 7</b> Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa
<b>Igandea, 28</b> Etxebeste J.M. (Gernikako arb. 3) Tolosa	<b>Ostirala, 3</b> Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	<b>Asteazkena, 8</b> Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa
<b>Astelehena, 29</b> Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa	<b>Larunbata, 4</b> Lejeune, Leyre (Euskal Herria, 46) Ibarra	<b>Osteguna, 9</b> Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa
<b>Asteartea, 30</b> Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa	<b>Igandea, 5</b> Morant R. (Zabalarreta 1) Tolosa	<b>Ostirala, 10</b> Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra

## Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Albaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	lurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	943 672 411	943 673 022
Ikaztegieta	Ertzantza	943 675 320
Medikua	Tolosa Gasa	
Irura	Lizartza	
Osasun zentroa	Medikua	943 682 077
Tolosa	Orendain	
Anbulatorioa, larriald.	Medikua	943 655 595
San Esteban, hitzordua	Orexa	
	Medikua	943 682 228

jarri zure  
publizitatea  
**Galtzaundi**  
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6  
20400 Tolosa  
publizitatea@galtzaundi.com  
943 655 004  
www.galtzaundi.com



**SANTA  
LUZIA  
GARAJEA**

Grua zerbitzua  
24 orduetan

943 653 491  
943 653 874  
943 653 985  
943 806 020  
Santa Luzia, 1-TOLOSA

**SANZ**  
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74  
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,  
7 behea  
20400 Tolosa

## Muxutruk

### Lana

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 602 684 094. (Amezketan)

• Emakumea, etxeko lanak egiteko eta pertsona helduak zaintzeko prest. 688 642 137

• Etxeko lanak egiteko lan bila. Ana Mari Atxaga. 634 404 452

• Klase partikularrak. Maila guztiak, talde txikietan. Esperientzia. (Kristina). 652 739808

• Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo ume zaintzaile gisa aritzeko. 602 684094 (Amezketan)

• Ordenagailuak konpontzen dira. Sistema eragileen instalazioa, birusak, datu berreskuratzeak, hardware eta software arazoak. Prezio egokian. 622217736.

### Etxebizitza

• 90m<sup>2</sup>-ko pisua salgai Anoetako solkorre kalean. Egongela handia, hiru logela, sukaldea, komuna, trasteroa, ganbara ta bi balkoi. 130.000€ . 688 887 178

### Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Aritz.

• Villabonan ileapaindegia salgai edo alokairuan. Sartzeko prest. 630 099092

### Erosketa

• Teutonia markako bigarren eskuo maxi cosia erosiko nuke. Interesatuak 635708540 zenbakira deitu mesedez. Mila esker

**aries**  
Martxoak 21-Apirilak 21

Datozen egunotaz disfrutatu ezazu, gogoan izan planifikatuta dituzun jarduerak. Naturak behar duzun energia emango dizu. Negozioetarako egun aproposak ez dira, bai ordea hitzarmen lehen oinarria zehazteko.

**taurus**  
Apirilak 22-Maiatzak 21

Kontuz gain-pisuarekin, ez dizu onik egiten ez osasun aldetik ezta estetika aldetik ere. Dietari ekin eta gustuko kirola praktikatzen hasi beharko zenuke. Arazorik aurkituz gero espezialista batekin jar zaitez harremanetan.

**gemini**  
Maiatzak 22-Ekainak 21

Alor profesionalen arazo bat baino gehiago sortuko da, ageriko zein ezkurtuko etsaiek lortu duzun tokia eskuratzeko ahaleginak egingo dituzte. Ez jokatuz oldartsuki, tentuz pentsatu eman beharreko pausoak.

**cancer**  
Ekainak 22-Uztailak 22

Interes berriak iritsiko dira zure bizitzara, ondoan duzun pertsonarekin partekatuz itzazu. Norbere burua eraberritzea ondo dago, baina ez ezazu bikotea bidean ahaztu. Erabaki garrantzitsuak hartuko dituzue elkarrekin.

**leo**  
Uztailak 23-Abuztuak 22

Ordu gehiagoz lo egin beharko zenuke. Paseo batek zure sentimenduak argitu ditzake. Osasuna kaltetzen dituzten ohiturak izanez gero, gogora ezazu zure gorputzak ahalbidetzen dizula bizitzea, lan egitea eta maitatzea.

**virgo**  
Abuztuak 23-Irailak 22

Arazoak eztabaidatu gabe konpondu itzazu. Onetik jorrazuz gero, egun txarra produktiboa ere izan daiteke; txarretik jokatuz gero ordea, uste baino gehiago gal dezakezu. Egunerokotasunetik ateratzeko momentua iritsi zaizu.

**libra**  
Irailak 23-Urriak 22

Bikotearekin denbora gehiago igarotzeko beharra duzu. Zure burua gizaki oso baten modura ikusi behar duzu, gaitasun eta akatsekin, zure bidea aurkitzen lagunduko dizu. Bidez disfrutatzen ikasiko duzu.

**scorpius**  
Urriak 23-Azaroak 22

Aldarte hobetuz gero, elkarrizketarako gaitasun handiagoa izango duzu. Besteek zuretzako prestaturiko planak baliteke zure gustukoak ez izatea, errentagarritasunik egokiena bilatzea da egin beharrekoa; gustuko ez duzuna alboratuz.

**sagitarius**  
Azaroak 23-Abenduak 21

Negozio-bidaiak ez dira probetxugarriak izango, ez dira planteatutako helburu guztiak eskuratuko. Meditazioak onura ekarriko dizu, zure burua gogoraz egaztuzeko aukera emango dizu.

**capricornius**  
Abenduak 22-Urtarrilak 20

Bakantzea ekidin beharko zenuke, sentimenduak partekatzeak on egingo dizu. Maitasun falta izanez gero, beldurrei erreparatu iezaezu. Negozioek datozen asteotan atsedena izango dute. Inguruan dituzunak baloratzen ikasi beharko zenuke.

**aquarius**  
Urtarrilak 21-Otsailak 20

Orekatuko zaituen dieta bati ekin beharko zenioke. Kirolak tentsioak erkatzen lagunduko dizu, familiaz eta lagunetz disfrutatzeko aukera izango duzu. Lana zaindu ezazu, oparotasuna ate joka duzu, ez etsi!

**piscis**  
Otsailak 21-Martxoak 20

Saiatu gehiegi ez hitz egiten, eta are gutxiago bazkide, lankide edota nagusiekin. Oso metodikoa izan beharko zara eta inguruaren hobekuntzaren zain geratu aurrerapausoak eman ahal izateko. Sentimenduek arrazoien gainetik aginduko dute.

# Horoskopoa

Apirilaren 26tik maiatzaren 10era arteko aurreikuspena

garralo publikoa  
**Gipuzkoa**

Persono guztien mesederako tarifa bateratuak.

Garralo-aldaketak baldintza onetan.

Erabileraren araberako deskontuak.

Talde berezietatik zuzendutako hobariak.

**Mugirekin, zu irabazle**  
Gipuzkoako garralo publikoa bateratzen duen sistema berria duzu.

TCC


943 000 117  
www.mugipuzkoa.com

**INFORMATIKO  
FUTBOLARI  
INJINERU  
ARRAUNLARI  
DANTZARI**

Tolosan  
Batxilergoko ibilbide guztiak  
Zikloetara bideratutako batxilergoa  
Eleaniztasuna  
Elkartrukeak  
Jarraipen pertsonalizatua

**BAT** hirukide

San Blas auzoa 27 - 943 67 03 11 - hirukide@hirukide.org - www.hirukide.org



Komikia: Joseba Antxustegietxarte



# Batxilergoa ikasi nahi duzu?

Leizaran Institutuan aukera baduzu.  
Tolosatik hamar kilometrora

Gaztelaniaz zein euskaraz eskaintza zabala:

DBH

Batxilergo Zientifikoa

Humanistikoa

Teknologikoa

Gizarte Integrazioko Goi Mailako Hezkuntza  
Zikloa

Gure eskaintza:

-Ondo komunikatuta dagoen ikastetxea

-Gela bereziak

-Liburutegiak

-Laborategia

-Orientazio zerbitzua

-Europako programak: Erasmus programak, Batxilergo  
ikasle trukea, ikasketa bidaiak

-...



**LEIZARAN**  
INSTITUTUA

Informazioa: [www.leizaran.net](http://www.leizaran.net)

Telefona: 943 300 078

Emaila: [012740aa@hezkuntza.net](mailto:012740aa@hezkuntza.net)

[zikloa.gipuzkoa@gmail.com](mailto:zikloa.gipuzkoa@gmail.com)